




1. Ezkerreko bentrikulua uzkurtu egiten da, eta bihotzetik kanpora bultzatzen du oxigenatutako odola, aorta arteriaren bidez.
2. Aortan zehar, hodi gero eta meheagoetara zabaltzen da odola, eta, azkenik, organo guztietako kapilarretaraino iristen da.
3. Kapilarretan, odolak oxigenoa eta mantenugaiak uzten ditu, eta hondakin-substantziak biltzen ditu.
4. Zainek odola hartu eta bihotzera eramaten dute. Kaba zainak eskuineko aurikulara sartzen dira.